



Interes notarialeko alderdiak Zibil Prozedurako Lege berrian

(Problems of interest for notaries in the new civil procedural law)

SILGUERO ESTAGNAN, Joaquín

Prozedura Zuzenbideko irakaslea
Euskal Herriko Unibertsitatea
Manuel de Lardizabal, 4
20018 Donostia
dppsiesj@sc.ehu.es

BIBLID [1137-1951 (2001), 7; 65-70]

Zibil Prozedurako Lege berria indarrean sartzearekin, babes judizial zibila eraginkorki eskaintzeko helburua bete nahi da. Ikuspegi desberdin askotatik azter daiteke hau. Notarioei dagokienez, eta fede emaile hauek trafiko juridikoan duten jardueraren inguruan, interes berezia daukate agiri publikoaren froga balioak, honorarioen kobrantzak edota erantzukizun zibilaren exigentzia bezalako alderdiek. Lan honetan, aipatutako gai horiek aztertzen dira, eta araudi prozesal berriak izango dituen ondorioen berri ere ematen da.

Za entrada en vigor de la nueva Ley de Enjuiciamiento Civil supone un intento de lograr la efectividad de la tutela judicial civil, lo que permite su estudio desde muy diversas perspectivas. Por lo que se refiere a los Notarios, aspectos tales como el valor de prueba plena del documento público, el cobro de honorarios o la exigencia de su responsabilidad civil, presentan un indudable interés por la actividad de estos fedatarios en el desarrollo del tráfico jurídico. Sobre estas cuestiones notariales se desarrolla el contenido del presente trabajo, extrayendo las consecuencias que podrán derivarse de la nueva regulación procesal.

Z'entrée en vigueur de la nouvelle Loi de Mise en Accusation Civile représente une tentative d'obtenir l'effet de la tutelle judiciaire civile, ce qui permet son étude à partir de perspectives très diverses. En ce qui concerne les Notaires, des aspects tels que la valeur de preuves plénières du document public, le recouvrement d'honoraires ou l'exigence de sa responsabilité civile, présentent un intérêt indubitable pour l'activité de ces officiers publics dans le développement du trafic juridique. Sur ces questions notariales se développe le contenu de ce travail, en en tirant les conséquences qui pourraient dériver de la nouvelle régulation de la procédure.



1. Agiri publikoen froga bete balioari buruz. 2. Arantzel notarialaren bidez sortutako ordainsariak kobratzeko kontuen zinaren prozeduraren indarreangotasuna. 3. Notarioaren erantzukizun zibila*.

1. Agiri publikoen froga bete balioari buruz

2000ko Zibil Prozedurako Lege berriko (Ley de Enjuiciamiento Civil. Aurrerantzean LEC) 319. artikulua froga bete balioa (gaztelera, valor de prueba plena) ematen dio agiri publikoari, honek dokumentatzen dituen gertakari, ekintza edo gauzen egoera, data, eta fede-emaile eta esku-hartzaileen identitateari dagokienez, eta horrek ondorio batzuk sortzen ditu frogari dagokion jarduera judizialean. Zentzu honetan, jurisprudentziak zin erabakitzailepean (gaztelera, juramento decisorio) egindako aitortzari buruz LEC 580 art. derogatuaren inguruan egindako pronuntziamentua gogoratu behar da [cfr. 1994ko apirilaren 9ko (RJ 1994\2739) eta 1993ko urtarrilaren 25eko AGEak (RJ 1993\358)]; hala ere, aitortza modalitate hau ez zenez aplikatzen, artikulua hori birtualtasun praktikorik gabe gelditu zen.

Nire ustez, ez da kasualitatea LEC berriak indarrean utzi izana Kode Zibilak agiri publikoei eskaintzen dizkien artikulua —bereziki 1218. art.—, frogabideei eskainitako gainerako arauak derogatu egiten dituen bitartean. Ez gaude legegilearen zabarkeria kasu baten aurrean, baizik eta agiri publikoek —eta, bereziki, notarialek— eremu judizialek kanpo harreman juridikoak sortzeko funtzioaren aintzatespen inplizituaren aurrean; “legearen baimen edo gaikuntza daukaten fede-emaileen interbentzioan ezarritako konfidantzagatik”, Zioen Azalpenak dioenaren arabera. Artikuluaren epigrafeak, “agiri publikoen froga indarra” aipatzerakoan, aurrez onartzen du ondorio prozesalak arautzera mugatzen dela, hau da, epailea konbentzitzera. Horrela, Kode Zibileko 1218. artikulua efektu frogatzailea guztien aurrean daukala esaten duen bitartean, LEC 319. art. —osagarri logikoa orbita prozesalaren alderditik— epaileari zuzentzen zaio, bere konbentzimendua lortzeko agiri publikoaren bidez kreditatu nahi diren egitateen egiazkotasunaren inguruan. Kode Zibileko 1218. artikulua “agiri publikoari beste frogabideei baino balio handiagoa” ematen ez dion arren [1983ko abenduaren 26ko AGE (RJ 1983\7004)], LEC 319. artikulua balio desberdina ematen dio, frogatutzat ematen dituelako prezeptu horretan agertzen diren ekintzak.

Tradizionalki esaten da bi direla froga baloratzeko sistemak, legala eta librekoa, baina apreziazio judiziala librekoa izango da beti, zeren eta funtzio jurisdikzionala lege inperioari menpekotua egoteak (KE 117.1. art.) ez du epailea aplikatzaile automatiko bihurtzen. Bere enjuiziamentura dagoen kasu zehatzaren inguruabarretara egokitzea da gomendagarriena.

Hala ere, legeak argi markatzen ditu frogabide batzuk baloratzeko erabili beharreko irizpide legalak. Frogabide horien artean agiri publikoak daude (LEC 319. art.), baina baita pribatuak ere (LEC 326. art.). Gainera, ez da ahaztu behar alderdien itaunketak ere —interrogatuak deklarazio kaltegarria ematen duenean— efektuak sortuko dituela beste frogeng aurrean (LEC 316. art.). Horregatik, agiri publikoak balio tasatua eta froga betearen balioa dituela esaten da, fede publikoak babestutako egintzek konbentzimendu judizial osoa sortuko dutelako.

Baina froga beteak ez du beste bide frogatzaileak kontuan hartzea galarazten, ez baitira nahastu behar ekintza frogatuen zehaztapena eta ekintza horien balorazioa. Azken honetan, apreziazio diskrezionala epaileak egiten du, eta ez liskarrean dauden alderdiek. Beste modu batean esanda, gauza bat da frogabide zehatz bat froga betearekin izatea, eta beste gauza bat, erabat ezberdina, epaileak gainerako frogabideekin batera ponderatzea. Horrela, kasuko inguruabar zehatzen balorazioak kontrapisu diskrezional —ez arbitrario— bezala jokatu du, Kontutuzioko 117. artikuluko mandatua errespetatuz. Ez dira balorazio askea eta balorazio osoa nahastu behar; bigarren hau mantendu egin daiteke, eta mantendu egin behar da. Horregatik, egia da 1999ko uztailaren 5eko AGEak (RJ 1999\4980) esaten duena: “epaileari ezin zaio eskritura publikoaren balio demostratiboa inposatu, ezazteko irizpidea beti askatasun osoz hartu behar delako, aportatu diren bitarteko guztiak kontuan hartuz. Maila eta plano ezberdinetan aurkitzen dira epaile edo Auzitegiek bitarteko hauek estimatzeko gradua eta legeak bitarteko bakoitzari markatzen dion espazio objektiboa”.

Errealitatean, ekintza frogatuen eta beren balorazioaren arteko bereizketak, bi perspektibak desberdintzeko balio du. Ekintza horiek justifikatzen dute Kode Zibilak agiri publikoei eskaintzen dizkien artikulua indarrean mantentzea. Hala ere, ekintzen balorazioa frogaren apreziazioaren aldekoa da, eta, beste frogaren ezberdin batzuen bidez, ahulduta, nabartuta edota hutsalduta gera daitezke agiri publikoak frogatutako ekintzak. Ondorioz, konbentzimendu

* Lan hau euskaratzen Koro Garmendiak lagundu dio autoreari.

“ Gauza bat da frogabide zehatz bat froga betea izatea, eta beste gauza bat, erabat ezberdina, epaileak gainerako frogabideekin batera ponderatzea ”

judiziala —froga prozesalaren betekizun nagusia— agiri publikoaren mamia beste frogekin erlazionatuz lortzen da, zeren eta agiria eman izanak eta honen datak bakarrik lotesten dute epailea. Zentzu honetan, 1997ko martxoaren 13ko (RJ 1997\2103), 1988ko azaroaren 5eko eta 10eko AGEek (RJ 1988\8418 eta 1988\8431) esaten duten bezala, fede publiko notarialak ez du kontratuen egia nahiz kontratuek ezkututzen edo disimulatzeko duten intentzio edo asmoa blindatzen; izan ere, fede notarialak data eta egileek bertan jasotzen diren adierazpenak fede emailearen aurrean egin zituztela bakarrik hartzen ditu kontuan. Gainerako edukia, eta bereziki, bertan jasotzen diren adierazpenen egiazkotasuna —adibidez, eskrituran agertzen den prezioaren ordainketaren eta, beraz, salerosketaren egiazkotasuna— beste frogekin batera balora daiteke —cfr. 1990eko otsailaren 20ko eta apirilaren 2ko AGEak (RJ 1990\705 eta RJ 1990\2689), 1992ko urriaren 23koa (RJ 1992\8279), 1997ko martxoaren 8koa (RJ 1997\1647) eta 1999ko abenduaren 23koa (RJ 1999\9361)—. Legeak ez die egiazkotasunik aitortzen; prozesuan praktikaturako frogak kontrastatzearen ondorioz ikusiko da egiazkoak diren ala ez, baldin eta inpugnatu egin badira —1988ko urtarrilaren 25eko eta uztailaren 8ko AGEak (RJ 1988\140 eta RJ 1988\5586)—. Bestalde, fede notariala ez da notarioak egiten dituen kalifikazioetara iristen, *iuris tantum* presuntzio bezala jokatzeko baitute; beraz, prozesuan bertan kontrako frogaren baten bidez deusez daitezke. Horrela, adibide gisa 1998ko maiatzaren 18ko AGE (RJ 1998\3376) aipa dezakegu, non perituaren frogatik medikuaren bidez suntsituta geratzen den notarioak testatzailearen gaitasunaren alde egindako judizioa.

Kode Zibileko 1218. artikulua aipatzen duen “ekintzaren” norainokotasunak agiria egiazkoa izatea exigitzen du; hau da, agiria fede

publikoa gordetzen duen funtzionarioarengandik etor dadila. Horren arabera izango da bere frogak betearren balioa (LEC 319 eta 320 art.), eta, inpugnatuz gero, prozesu zibilarren baitan intzidente bezala aztertuko da, edota prozesu penal independente batean, faltsukeriak kuestio aurrejudizial bezala jokatu (LEC 40. art.). Frogak bete horrek, dataz eta fede emailearen nahiz parte-hartzaileen identitateaz gain, “dokumentatzen diren egitate, ekintza nahiz gauzen egoera” barnebiltzeak, honako tesia baieztatzen du: fede publiko notarialak, notarioaren ebidentzia sensorialak ez ezik, agirian jasotzen den negoziatzeko borondatearen adierazpena ere barnebiltzen duela, negozioa ekintza sinple bezala hartu beharrean. Baina indar frogatzaile prozesal honek ez ditu Kode Zibileko 1218. artikulua aipatzen dituen alderdien adierazpenak barnebiltzen.

Helegiteen kasuko tutela judizialari begira, nabarmendu behar da Kode Zibileko 1218. eta LEC 319. artikuluen urrapena ezohiko helegiteen bidez inpugna daitekeela —arudi berriak sakonean aldatu dituen helegiteak—; hala ere, badago helegite arrunten bidez eta bereziki apelaziozkoaren bidez helegiteko aukera ere.

Jurisprudentziari begiratu gero, kasaziora jotzeko aukerak ez luke zalantzarik sortu beharko. Forma errespetatu ez izana ezohiko helegite berriaren esparrura bideratzen den arren —prozesuko arauak hautsi izanagatik—, Auzitegi Gorenak ordenamendu juridikoaren urrapen baten aurrean gaudela adierazten du, orain arte 1692.4 artikuluan sartuta, eta LEC berriarekin, 477 artikuluan. Horrela, Kode Zibileko 1218. eta LEC 319. artikulua —agiri publikoek epaiketatan duten frogak balio eta efektuari buruzkoak— urratu direla alegatzen denean, posible izango da kasazio helegitea tarteratzea (LEC 477.1 art.). Hala ere, ez da nahikoa legea urratzea; horrez gain, LEC 477.2 artikulua jasotzen duen suposturen batekin bat etorri behar du, eta, beraz, kasu askok 319. artikuluan jasotzen den araudia alegatuz bilatuko dute kasaziorako interesa (LEC 477.3 art.). Horrenbestez, ekintza frogatuen fijazioa aipatutako prezeptuek esandakoaren aurkakoa denean bakarrik egingo du aurrera helegiteak; hau da, epaileak ez duenean agiri publikoaren balorazio tasatuaren irizpidea kontuan hartu, ez dituelako fede notarial publikoaren elementuak frogatutzat eman, agiriak egiazkoa izateko baldintza guztiak bete arren. Hala ere, epailea erabat oker dagoenean bakarrik berrikusiko da frogaren balorazioa kasaziorako kontrolaren bidez, pronunziamendu xeble eta zentzugabeak ekiditeko.

Alderdiek, LEC 466 artikulua ematen dizkien fakultateak erabiliz, urrapen prozesaleko helegitea jo beharrean kasazio helegitea jo nahiago izateak, aipatutako tendentzia mantenduko dela pentsaraz dezake. Kontuan izan urrapen prozesaleko helegiteak, aurrera

egitekotan, jarduerak errepikatzea bakarrik aginduko lukeela. Hala ere, baliteke etorkizunean hau izatea praktika nagusia, bai Auzitegi Gorenaren lana arintzeagatik, bai urrapen prozesalagatiko ezohiko helegite berriaren konfigurazioagatik ere (LEC 468 eta hurr. artikulua), aplikatzeko dauden zailtasunak gainditu bezain laster (16. Azken Xedapena), aipatutako urrapen legala indefentsioa sortzen duen kuestio prozesal batetik eratorzen da-eta (LEC 225.3 eta 469.3 art.). Soluzio honek egungo jurisprudentzia aldatzea eskatzen du, kontu hauek 1881eko LEC 1692.4 artikulua esparrura eramaten baitira, eta ez aipatutako artikuluko 3. atalera —cfr. 1997ko apirilaren 4ko (RJ 1997\2636) eta 1999ko abenduaren 20ko AGEak (RJ 1999\9202)—, nahiz eta arau hauste prozesalagatiko helegite berriaren araudian jasotzen diren terminoak azken atal honetan daudenaren oso antzekoak izan. Ikuspegi prozesalek egokiagoa den bide honek aurrera egitekotan, posible izango litzateke, Justizia Auzitegi Nagusi desberdinen doktrina jurisprudentziala bateratzeko, legearen intereseko helegitea tarteratzea ere (LEC 490 eta hurr. art.). Hala ere, muga garrantzitsuak dauzka helegite honek, bai tarteratzeko legitimazioari dagokionez, bai epaiaren efektuei dagokienez (LEC 491 eta 493 art.). Jarduera judizialak logikaren arauak urratzean, arau hauste prozesalagatiko ezohiko helegitea tarteratu beharko da, motibazio faktikoa (LEC 218.2 eta 469.2. art.) eta forma urratzeagatik.

2. Arantzel notarialaren bidez sortutako ordainsariak kobratzeko kontuen zinaren prozeduraren indarreangotasuna

Erregelamendu Notarialeko (aurrerantzean, RN) 63. artikulua premiamenduzko bidera egiten du eragorpena “ordainsari eta eskubideei dagokienez, eta notarioak oinordetza eta ondarezko transmisioen zerga orokorren inguruan eta Jabetza Erregistroko egintza juridiko dokumentatu, gainbalio edo inskripzioen inguruan ordaindutako eskubide eta kantitateei dagokienez”. Erregulazio prozesal berriaren kasuan, kontua da ea notarioek jo ote dezaketen premiamendu bidera, RN 63. eta RH 615 eta 617. art.ek diotenaren arabera, edo, alderantziz, mekanismo prozesal orokorretara jo behar duten. Gauza ez dago argi, pronuntziamendu judizial desberdinak eman direlako —alde, Toledoko EPE, 1999ko ekainaren 10ekoa (AC 1999\5037) eta Arabako EPren Autoa, 2000ko martxoaren 4koa (AC 2000\756); kontra, Albaceteko EPren Autoa 1998ko azaroaren 24koa (AC 1998\7699)—. Lehenengo jarrerak bere alde du Tasa eta Prezio Publikoen 8/1989 Legeak, apirilaren 13koak, bere 3. xedapen gehigarriari baliokidetu egin duela arautegia, arantzelak erregulatzen dituzten

arauetara birbidera daitekeelako. Era berean, esan behar da 1427/1989, azaroaren 17ko Errege Dekretuak RH 615. artikuluko 1. paragrafoa derogatzen duela, baina bere horretan uzten duela 2. paragrafoa, non espreski aitortzen den erregistratzaileek ordainsariak ordainarazteko premiamenduzko bidera jotzeko aukera. Aurreikuspen hori notarioei ere aplika dakieke, aipatutako RN 63. artikulua egiten duen eragorpenaren bidez. Hala ere, kontra esan behar da kontuen zina (gazteleraz, jura de cuentas) Legeak espreski aipatzen dituen profesionalen bakarrik aplika dakiekeela (abokatu eta prokuradoreei), ez beste inori. Gauza bera prozesu monitorioko aurreikuspen espresuari dagokionez, zeina, LEC berriko Zioen Adierazpenaren arabera, “auziperatuen diruak, eta, bereziki, profesional eta enpresari ertain eta txikiak, babes azkar eta eraginkorra izateko” sortzen den; horregatik, kasu honetan ere erabil daiteke.

Errealitatean, akzio pribilegiatu eta sumarioak dira, baina, izen hori eduki arren, ez daukate prokuradore eta abokatuentzat aintzatetsitako kontuen zinarekin zerikusirik. Kontuen zin hau 1881eko LEC 8 eta 12. artikuluetan finkatzen zen, eta erregulazio berriaren aurreikuspenen bidez, doktrina konstituzionalera egokitzeko aldaketa batzuekin —110/1993, martxoaren 25eko eta 12/1997, urtarrilaren 27ko AGEak—, bai prokuradoreen, bai abokatuaren inguruan (LEC 34. eta 35. art.). Pribilegio bat denez, bere oinarriak ezin dira analogikoki zabaldu, zeren eta 119/1993ko martxoaren 25eko AKEak dioenez, “kontuen zinaren helburua ez da interes subjektibo edo personalak interes hauek sustatzeko legitimatuta dauden profesionalen onerako babestea, baizik eta Justizia Administrazioaren kooperatzaile gisa prozesuan zehar bete dituzten betekizunei dagokien gastu eta kontraprestazioak itzultzea... objektiboki eta arrazionalki, zorrak sortu direneko prozesua bera da beste zor motekiko tratua desberdina ematea justifikatzen duena”. Eta 1881eko LEC 12. eta 35. artikuluek galarazi egiten diote abokatuari judizioaz kanpoko jarduerengatik ordainsariak eskatzea. Horregatik, oso zaila da prozesutik kanpo egiten diren jarduera notarial eta erregistratzen dituzten kontuen zina erabil daitekeela esatea.

Hala ere, RH 617. artikulua arretaz irakurrita, defendagarria da erregistratzaileak aurkeztutako kontua edo, bere kasuan, notarioaren minuta, epaiaren aurrean aurkeztu ahal izatea, bai exekuzioaz arduratzeko, bai premiamenduzko biderako. Hori da, eta ez besterik, artikulua horrek dioena. Ondorio prozesalei dagokienez, LECi egiten dio eragorpena; ez du prozedura berezirik ezartzen, KE 117.3 artikuluko legaltasun prozesal printzipioaren arabera onartezina litzatekeelako.

Prozesu monitorioaren aurreikuspen legala ere ez da oztopo LEC berria indarrean sartu eta

gero indarrean dirauela onartzeko. Lehen aipatutako Zioen Adierazpena alde batera utzita, testu legal berriak ez du derogatzen ez eta aipatzen eskubide arantzelarioak kobratzeko prozeduraren erregulazioa. Horrenbestez, indarrean dirauela mantentzeko, eta prozesu monitorioan notarioaren borondatearen arabera helegin ahal izango dela, gainerako bide prozesalean bezala. Prozesu monitorio hori ez da exekuzioarekin nahastu behar, zeren eta exekuzioa egin daitekeen arren (LEC 812.2 art.), oztopo handi bat dauka hartzekodunarentzat: zordunaren aurkaritzak asuntza dagokion epaiketaren bidez erabakitzen duela (LEC 818. art.), prozeduraren efektibitatea askotan kolokan geratuz.

Premiamenduko bidera jotzeko titulu exekutiboaren beharra, kasu honetan, Tasa eta Prezio Publikoen apirilaren 13ko 8/1989 Legeko aurreikuspenaren bitartez asetu daiteke. Aurreikuspen honek RH 615 eta 617 artikuluen marko normatibo gisa balio du, eta LEC 517. artikuluen 9. atalak baimentzen duen zenbaketa irekiaren barruan dago.

Baina, edonola ere, garrantzitsua da berme konstituzionalak errespetatzea. Zentzu honetan, notarioak eta erregistratzaileak segurtasun juridikoa babesteko daukaten funtzioak modu objektiboan justifika dezake pribilegio hau KE 14. artikuluen ikuspegitik kontserbatzea. Barzelonako Entzutegi Probintzialaren 1995eko apirilaren 3ko Autoak esaten du kredito mota bat dela, bere existentzia eta zenbatekoa instrumentu fede emaileetatik eta arantzel ofizialetatik eratorritzen dela, eta bulego eta zerbitzu publikoak finantzatzeko zeharkako bitartekoa dela. Izan ere, notarioak, daukan funtzioagatik, ezin dio kredituak sortzen dituzten instrumentuak emateari uko egin, nahiz eta berehalakoan ez ordaindu. KE 24. artikuluan aipatzen diren bermeei dagokionez, kobrantzarako modalitate labur honek ez du gauza juzgatu materialaren baliorik, eta, beraz, ondoren juicio deklarativo bat egin daiteke, zordunak jarduera exekutiboan oposa ezin ditzakeen beste alderdi batzuk konpontzeko.

Bere konstituzionaltasunari buruzko zalantzak gutxiti egiten dira, kontuan hartzen bada RH 617. artikulua LECera eragortzen duela, eta ez premiamenduzko bidea gauzatzeko bakarrik (LEC 634 eta hurr. art.), baizik eta baita exekuzioari dagokionez ere (LEC 548 eta hurr. art.ak). Ondorioz, berme konstituzionalak — bereziki zordunaren defentsa eskubidetik eratorritakoak— nahikoa babestuta daude, nahiz eta, RH 617. art.ak dioen bezala, kobrantza sistema oinarritzen duten auresupostuak judizialki kontrolatzeko aukera egon. Horrela, hainbat gauza egiaztatu beharko dira: erregistratzailearen kontua edo notarioaren minuta zehaztuta daudela, ordaindutako ordainsarien

operazio mota eta data, zenbatekoa, arantzelaren inguruan aplikatutako arauak, eta, bere kasuan, ordaindutako gastuen kopurua. LEC berrira eta diruzko exekuzioa arautzen duten arauetara egiten den eragorpenaren bidez egokitzen zaio Konstituzioari. Horretarako, ordainketa aurrez errekeritu behar da (LEC 581 art.), eta zordunak aurka jartzeko eskubidea izango du (LEC 557); bestela, exekuziorako agirian zehaztutako kopurua kontsignatuz ekidin daiteke bahitura.

3. Notarioaren erantzukizun zibila

Notarioaren jokabide axolagabetik eratorritako kalteak jurisdikzio zibilaren aurrean exigitzen dira. Hala ere, Erregelamendu Notarialeko 146. artikuluan jasotzen den adiskidetze espedientearen erabil daiteke. Honen bitartez, dagokion Kolegioko Junta Direktiboak notarioaren jarreratik argi eta garbi ondorioztatzen baditu bai kalteak eta bai indemnitzatzeko beharra, erantzukizun zibil hori dagoen edo ez prejuzgatu gabe, ordaindu beharreko kantitateari buruzko proposamen bat luzatu ahal izango die alderdiei, adostasunera iritsiz gero prozedura judiziala ekiditeko. Esan behar da gai hau DGRNen eskuduntzatik kanpo dagoela —aipatzekoak dira 1996ko apirilaren 16ko (RJ 1997\8286), 1995eko azaroaren 2ko (RJ 1996\1688) eta 1995eko urriaren 26ko (RJ 1996\1686) Ebazpenak—, eta Administrazioaren ondarezko erantzukizuna mugatuta dagoela, funtzio publikoak dauzkaten profesional pribatuei buruzkoa baita, 1998ko urriaren 13ko AGEak dioen bezala (RJ 1998\9452). Notarioari dagozkion funtzioetatik eratorri ahal izango da erantzukizun zibila; adibidez, instrumentu publikoaren idazketatik, onesleei behar bezala asesoratu beharretik, emandako agiriaren inguruabar eta ondorioez informazio zehatza eman beharretik —DGRNren 1995eko urriaren 26ko Ebazpenak dioen bezala (RJ 1996\1686)— nahiz bere inpartzialitatea bermatu beharretik.

Ez dago oso argi izaera kontraktual edo estrakontraktuala ote duen, eta arazo horrek eragina du akzioa egikaritzeko preskripzio epe desberdinetan. Erantzukizun kontraktualaren kontsiderazioak ez dirudi burugabea, zerbitzuen errendamendua dagoela ulertuz gero, Barzelonako EPren 1999ko ekainaren 21eko Epaia dioen bezala (AC 1999\6986). Hala ere, badira iritzi honen aurkako pronuntziak jurisdikziozkoak; adibidez, 1965eko uztailaren 3ko AGE (RJ 1965\3696), Kode Zibileko 1968.2 artikuluan aurreikusten den urte beteko epea aplikatzen duena. Edo 1988ko ekainaren 11ko AGE (RJ 1998\4869), non, LN 23. artikuluen bitartez, trataera berezia ematen baita ion errakuntzari. Hau da, notarioak onesleetako bat ezagutzen duela fede eman nahi izanez gero, baina oneslearen jokabide maltzurak bere

“ Fede publiko notarialak eskritura publikoa eman izana, data, eta onesleek notarioaren aurrean deklarazio batzuk egin dituztela bakarrik akreditatzen du, ez deklarazio horien egiazkotasuna ”

Zentzu honetan, 1993ko maiatzaren 6ko AGEak dioen bezala, “eskriturak, deklaratu egin zela frogatzen du, ez deklaraturako hori egia denik”.

Horregatik, notarioak ez du auzikidea izan behar, neglijentzia profesionalik ez dagoen bitartean ezin izango zaiolako prozesura deitu, legitimazio ezagatik. Bestetik, LEC 13 eta 14. artikuluetan jasotzen den interbentzioko erregimena ezin izango da puntu honetan aplikatu, notarioak ez duelako onesleek egin dituzten adierazpenen inguruan interes zuzen eta legitimorik. Gainera, notarioak egia materialaren alde egon behar du, ez formalaren alde, azken hau dokumentalki jaso denean.

Aurrekoari kalterik egin gabe, prozesuetako objektuen artean lotura dagoenean pilatu ahal izango dira prozesuak (LEC 76. art.), baina kontuan hartu behar da kasu horretan ez dela parte-hartzaileen pluraltasunik egongo, baizik eta prozedura bakar bat jarraitzen duten prozesuen pluraltasuna, ez baitira gauza bera.

personalitateari buruzko errakuntzara eramango balu notarioa, ez litzateke Kode Zibileko 1902 artikulua aipatzen duen erru edo neglijentziarik egongo, baina bai errakuntza horrek hirugarren interesatuei eragindako kalteak indemnitzatzeko beharra. Zein erantzukizun mota dagoen erabakitzeke, kasuko inguruabarrei begiratzea izango da komenigarriena, batik bat kontuan hartuz epaileak arauen konkurtsoa dagoela erabaki dezakeela, eta neglijentzia profesionala kondenatzeko pretentsioa oinarritzen duten ekintzei dagokienez bakarrik lotuko zaiola alderdiek esandakora.

Notarioari erantzukizun zibila egozteko, kalteak ez ezik, kulpazko akzio edo omisioak eta kausalitatezko loturak ere egon behar dute. Horrela, adibidez, 1998ko martxoaren 18ko AGEak (RJ 1998\1350), kausalitatearen loturarik ez egotean, ez du notarioari indemnizazioa eskatzeko estimatzen, porrotaren erretroakzioak instrumentu publikoaren deuseztasuna sortu zuelako, “notarioaren axolagabekeria argi eta garbia” xurgatuz, eta honek eragin zezakeen kaltea sortzea ekidinez.

Auziaren ezarreraren ikuspegitik, epaiketaren helburua erantzukizun zibila erreklamatzeko denean bakarrik izango da notarioa parte, baina ez agiria inpugnatzeko epaiketetan. Ez da ahaztu behar fede publiko notarialak akreditatzen dituen gauza bakarrak eskritura publikoa eman izana, data, eta onesleek notarioaren aurrean deklarazio batzuk egin dituztela direla, ez deklarazio horien egiazkotasuna, ezta intentzio edo asmoa ere, horiek notarioaren preziazioetik kanpo gelditzen direlako.